

opusdei.org

# **Iruñeko Elizbarrutiak eskerroneko zorra dauka Irabiarekin**

Iruñeko apaizgaitegia, ttanttaka  
baina etengabe

2004 Abe 30

Azaroan, Irabia ikastetxeak 40 urte  
bete zituela eta, Iruñeko katedralean  
elizbarrutiko bikario orokorrak, Luis  
Oroz jn., meza eman zuen  
ikastetxeko ikasle, senide eta  
irakasleentzat.

Azken urteotan, 1988az geroztik hain zuzen, beti egon da Iruñeko apaizgaitegian Irabiako ikaslearen bat. Horrela jakinarazi zioten Irabiatik atera diren zortzi apaizek gotzainaren bikarioari, Luis Oroz Jn. Eta honek bere homilian eskertu nahi izan zuen ikastetxeari abadeen uzta hori "Iruñeko Elizbarrutiak eskerroneko zorra dauka Irabiarekin" esanez.

Dena dela, “eskerroneko zorra” espresio hori ez zen berria. Urte honetako apaizgintzako elizkizunean apaiz berri batek kontatu zion Gotzainari Irabiako ikaslea izan zela eta honek momentu horretan erabili zituen hitz horiek lehen aldiz.

Dagoeneko apaiztu direnak hauexek dira: Jose M<sup>a</sup> Martincorena (1993), Juan Ignacio Ruiz (1996), Pedro Sanz (1996), Josetxo Vera (1998), David Baranguan (2000), Santiago Arellano (2001), David Galarza (2003), Jairo

Díaz (diakono, 2004). Lizarrako  
parrokietan egiten dute bere lana  
Martincorenak eta Galarzak.

---

pdf | document generated  
automatically from [https://  
dev.opusdei.org/eu-es/article/iruneko-  
elizbarrutiak-eskerroneko-zorra-dauka-  
irabiarekin/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/iruneko-elizbarrutiak-eskerroneko-zorra-dauka-irabiarekin/) (2025 Abu 8)